



MUSIKA BELTZA ASTEBURUAN BONBERENEAN

Acido C eta Mamba Beat taldeak ariko dira zuzenean, bihar, 22:30etik aurrera; gaur, We are standard izango da 2

TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza



Osteguna
2009-05-07

VIIURTEA 1.695.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Tolosako Kultur Etxean bildu dira egunotan ikasleak, 'Munduari bira jolasean' ekimenean parte hartzeko. R. CALVO

Gaur hasiko da Leitza Herri Arteko Txapelketan

LEITZA Uharteren aurka ariko dira Aurrera Pilota Eskolako seniorrak 20:30etik aurrera 7

Txileko hainbat artista izango dira asteburuan gurean

TOLOSA Plaza Zaharrea izango dira gaur egun osoan; bihar erakusketa inauguratuko dute 3

MUNDUARI BIRA TOLOSATIK MUGITU ERE EGIN GABE

TOLOSA Tolosako eta Ibarako Lehen Hezkuntzako bigarren mailako ikasleak munduko hainbat lurralde ezagutu dituzte jolasen bidez 4

Ohorezko alkateza kargua kendu dio Udalak Francori

ALEGIA Anoetan eta Arrasaten ere egin dute dagoeneko 5

Eskola Agenda 21ean landutakoa Udalarari aurkeztu diote ikasleek

VILLABONA Ekitate gabezia landu dute Fleming eta Jesusen Bihotzakoe 6



berabera
EMAKUMEZKO ESKUBALOI TALDEA

TXOKOA hitza

HITZAK harpidedunentzat
2 sarrera pare ditu

AKABA BERA BERA
Elche-Mustang

Maiatzak 9 • **Larunbata** • 19:00etan
Donostiako Bidebieta Kiroldegian

HITZAK harpidedunentzat
sarrera pare du

ATE JOKA
antzezilana

Maiatzak 9 • **Larunbata** • 20:30ean
Tolosako Leidorren



sarrerak



sarrerak eskuratzeko deitu goizez: 943-65 56 95 telefono zenbakira harpidedun kodea eskura duzula



Acido C taldea Donostiatik dator beraien azken lana aurkezteko asmoz; Mamba Beat berriz jendea dantzan jartzen saiatuko da. HITZA

Acido C eta Mamba Beat zuzenean ariko dira bihar Bonberenean

Musika » Musika beltzaren gaua izango da biharko; gaur gauean berriz, We are standard talde izango da taula gainean.

ERREDAKZIOA

Musika beltza hurbildu nahi dute asteburu honetan Bonbereneakoek, Tolosara. Hori dela eta, bi eskal talde gonbidatu dituzte bihar. Kontzertuak 22:30ean hasiko

dira eta gauerdira arte luzatu. Baina honen aurretik, gaur, We are standard taldea zuzenean entzuteko parada izango da gaur gauean. Bilbotarrak bira luze bat egiten ari dira, eta Bonberenean geldituko dira tolosarren eskeletua mugitzeko asmoz.

Ostiraleko zuzenekoan ostein biharamunik ez duenak, larunbatean ere musikaz gozatzeko aukera izango du Bonberenean. Izan ere, 22:30etik aurrera Inerve eta Kaskezur taldeak izango dira tau-

lagaineen. Inerve talde irundarra beraien azken diskoa aurkezteko asmoz dator Tolosara, eta Kaskezur, berriz, Nafarroatik, beraien onena emateko asmoz.

Musika beltzaren gaua

Acido C taldea Donostiatik dator beraien azken lana aurkezteko asmoz, *Stereopropulsion*. Diskoaren sensualitatea nabarmena da eta gainezka egiten du; doinu bakioztzak fereka goxo baten indar psikologikoa du, dantzarako bultzada

intimoa, kantuek transportatu egiten zaituzte stereopropulsioraino. Mugimendu elektrifikanteak batzuetan, mantsok eta hipersensibileak besteetan. Kantuak batzuetan ziztu bizian doaz eta gero erritmo geldoak hartzen dituzte, lasaitasunari tartea eskaintzeko asmoz. Bozgoragailuez beteriko kohete intermusikala. 70eko eta 80ko hamarkadetako musika beltzaren arnasa du diskoak. Disko retroa dela ere esan daiteke; garai horien errebisioa da Stereoprop-

pulsion. Disko house gogotsua, funk zalapartatsua, soul sentibera-tua, dantzarako musika beltza, acid jazz txundigarria, mugimendurako erritmo alaiak, haize atal bikaina, sintetizadoreen ukitu dir-diratsuak programazioekin nahastuta, perkusio eta gitarra biribilak irribarre handiaren bila. Goxotasuna, hurbiltasuna. Acido C, koipe garbitzaile eraginkorra.

Mamba Beat berriz, Bilbo eta La Havanako (Cuba) musikariek osatzen dute. Une honetan disko berria grabatzen ari dira. Bilboko musikariek osatzen dute batzutan seikotea bihurtzen den, Mamba Beat, laukotea. Programazio elektronikoak euskarri, jazz, funkia eta musika beltzean oinarritutako musika lantzen dute. Dantzarako gonbitea da bere proposamena groove, acid, tekno edo soul erritmoen bitartez. Musikariak Cherry Boppers, Ska-P, Txuma Murugarren, Lovercraft, Doctor Deseo, Soul Bussiness... moduko taldeen-tan ibilitakoak dira.

Afrikako suge pozoitsu baten izena duen talde hau 2006. urteaz geroztik ari da hurbiltzen zaion oro dantza makina bihurtzen. Eginkizun horretarako elkartu baitira ibilbide luzeko musikariak Mamba Beat taldean.

Horrez gain, Elektrohousefunk Jaia izeneko festak antolatzen ditu disko jartzaileekin, dantzariekin eta irudi proiektzioekin. Ordenagailuz sorturiko oinarri elektronikoak hartu ditu Mamba Beatek bere soinuaren ardatz nagusi, eta hainbat estiloren osagaiak eta fraseoak erantsi dizkie (house, funk, salsa, latin, jazz, afro beat...), entzulea dantzan jartzeko ez ezik haren gozoa bahitzeko gaitasuna duen doinu nahasketa bero, eraginkor eta oso landua gauzatzeko.

'Ate joka' antzezlanaren taularatuko dute etzi Txalo Produksioak taldekoek

Kultura » Leidor antzokian izango da emanaldia 20:30ean; bi lagun arteko gora-beherak kontatzen ditu komediak.

ERREDAKZIOA

Txalo produkzioak antzerki konpainiak *Ate joka* lana eskainiko du larunbatean, Leidor antzokian. 20:30ean hasiko da ikuskizuna. Sarrerak, www.kutxa.net webgunean, Servikutxan, Telekutxan 943 00 12 00 telefono zenbakira deituta edo Leidorreko leihatilan eskuratu daitezke 10 eurotan. %30eko deskontua izango dute Gazte-txartela edo familia ugarien txartela dutenek, eta jubilatuak. Baina hauek, alde aurretik eskatu beharko dituzte txartelak Leidorreko leihatilan.



Joseba Usabiaga, Iker Galarza eta Sara Cozar dira antzerki honetako protagonistak. HITZA

Antzezlanaren Neil Simon idazlearen *The Odd Couple* lanean oinarrituta dago, Ritxi Lizartzak moldatua da eta Begoña Bilbao zuzentzen du. Leidor antzokiko oholtzara igoko diren aktoreak Jo-

seba Usabiaga, eta Iker Galartza tolosarrak nahiz Sara Cozar ordiziarra izango dira.

Ate joka lanak bi lagun arteko gorabeherak kontatzen ditu. Bata, Joxemai, emaztearengandik ba-

nandua dago, dagoeneko bakarrik bizitzera ohitu da, bizizalea da eta bizio asko ditu. Bestea, Andres, txikitatik laguna duena, ezkondua da eta dibortziazkotan dago eta maniatikoa, garbitzaile eta obsesiboa

da. Elkarbizitza horrek egoera komikoak, barregarriak, tristeak eta mingarriak erakutsiko dizkio ikusleari.

Hiruak ere *Goenkale* telesailaren egindako lanagatik dira ezagunak. Baina antzerki munduan ere lan handia egin duten aktoreak dira.

Eskualdeko bi, protagonista

Tolosako bi aktore dira antzezlan honetako protagonista: Iker Galarza eta Joseba Usabiaga. Bi aktore tolosarrak erraz mugitzen diren generokoa da antzezlan, komedia arinekoa. Bikoteen arteko elkarbizitza da obraren ardatza. Baita elkarbizitza horretan lagun onena sartzen denean. Komedia entretenigarri bat da oraingo hau beraz.

Galartzak eta Usabiagak aurretik egin dute batera lan. *Erreleboa* eta *Bota patsa!* lanetan aritu dira. Kasu horietan biak bakarrik agertzen ziren taula gainean. Oraingo honetan Sara Cozar aktorea izango dute ondoan. Aldaketak aldaketa, umoreak zeresan handia izaten jarraitzen du.

Laburrak

Musika Eskolan aurrematrikularako epaia

MUSIKA ● Eduardo Mokoroa Udala Musika Eskolako 09/10 ikasturteko aurrematrikula maiatzaren 29ra bitarte egin ahalko da, asteleheneetik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara. Akordeoia, pianoa, perkusioa, flauta, klarineta, oboea, saxofoia, bibolina, biola, biolon-txeloia, kontrabaxua, baxu elektrikoa, tronpetea, tronboia, tronpa, bonbardinoia, tuba, txistua eta dulzaina dira musika eskolan ematen diren ikasgaiak. Lau urterekin has daitezke eta helduentzat solfeoiko eta instrumentuko ikasketa bereziak ere ematen dira.

Pello Odriozolaren aldeko elkarretaratzea, gaur

POLITIKA ● Hilabetero lehenengo ostegunean egin ohi duten bezala gaur, 19:30ean, elkarretaratzerantz deitu du Lizardi Kultur Elkarteak, Plaza Zaharrean, Pello Odriozola bazkidearen alde. Elkartekoez salatzen duten bezala, «hamar hilabete pasa dira aske egon behar zuenetik. 20 urte kartzelan pasa, eta atera behar zuenean, mendeku politikoz zitala ezarri diote». Tolosa Udalaren jarraera ere salatzen dute: «Pello nonbait ez da tolosarra, ez du osoko bilkuraren batean aipamenik ere merizi, bidegabeheria guztiak desberdinak baitira egiten dituenaren arabera. Biktima batzuk dituzte gogoa beste batzuen familia eta lagunak jipoitzen eta atxilotzen dituzten bitartean».

Alpinok mendi irteera antolatu du iganderako

MENDIA ● Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du igandea honetarako. Txangoa Ligin (Zuberoa) hasi eta Santa Grazin bukatuko da. Izarbe (1.565 m.) mendia igoko dute. 6 ordu eta erdiko izango da ibilbidea. Autobusa Santa Klaratik irteerako da 06:30ean. Elkartean, 943 65 27 89 zenbakian edo alpinouzturre@hotmail.com helbidean ean beharko da, eta bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 13.

Javier Gordori ongietorria egingo diote bihar

POLITIKA ● Ongietorria egingo diote bihar Javier Gordo euskal preso ohiari, Tolosako Triangulo plazan. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta bertan, bertsolariak, dantzariak eta txalapartariak izango dira, eta ekitaldi politikoa ere egingo dute. Ondoren, Oargi elkartearen afaria izango da. Hara joan nahi dutenentzat txartelak salgai daude, eta Elurra eta Raku tabernetan eskura daitezke, 15 euroren truke. Javier Gordo tolosarra pasa den apirilaren 25ean utzi zuten aske, eta egun horretan bertan egin zioten harrera hainbat herritarrek Tolosan.

Txileko artisten bisita izango dute gaurtik larunbatera GKO galeriakoez

Kultura ● Gaur Plaza Zaharrean ariko dira egun osoan; bihar erakusketa inauguratuko dute, eta etzi Berazubini ariko dira.

INIGO TERRADILLOS

Txileko KiltV izeneko artista taldearen bisita jasoko du gaur Tolosako GKO arte galeriak. *Herriko Elkarrizketak* izeneko proiektuaren baitan kokatzen da tolosarrekin egingo duten elkartrukea, eta Ipar Euskal Herriko eta Frantziako hainbat herritan kokaturiko Spacejunk galeriatan ere izan dira. Hala, Txileko artea gurean ikusteko aukera egongo den bezala, tolosarrak izango dira ondoren hara, Txilera, joango direnak, euren erakustera.

Tolosako bisitari dagokionez, hainbat ekintza prestatu dituzte hiru egunetan zehar burutzeko. Batetik, GKO arte galerian bihar zabalduko duten erakusketa izango da. Hau, hainbat eguneguz egongo da bertan, eta txiletar hauen lan egiteko modua ezagutu ahalko da. Baina, erakusketa jartzeaz gain, Txileko artea kalera ere atera nahi izan dute GKO galeriakoez. Hala, gaur Plaza Zaharretik igarotzen denak KiltV taldeko kideak zuzenean lanean ikusteko aukera izango du. Modu berezian ariko dira, gainera, horretarako prestatu duten 15 metro perimetroko hirukiaren jarriko dira lanean. Kasu honetan, txiletarrekin batera bertako artistak ariko dira, eta GKO galeriakoez animatzen den oro ere animatu nahi dute ekimen honetan parte hartzea.

«Arteak demokratikoagoa izan behar du»

Garikoitz Murua GKO arte galeriada, eta bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 13.

Bestalde, Bertrand Iratchet KiltV artista taldeko kideak azaldu bezala, «gure lan artistikoak badu gizarte lanetik ere, izan ere, arteak demokratikoagoa izan behar duela uste dugu». Europar egiten ari diren biran Tolosa puntu garrantzitsu izatea nahi dutela dio: «gazteek nahiz helduek planetaren beste muturrean egiten dena ikustera gerturatzea gustatuko litzaziguke Tolosan gauden egunetan». Hala, ikustez gain, euren lana guztien eskura egotea nahi dute, eta horretarako «guztiantza-



Baionako Spacejunk galerian egon zireneko unea. HITZA

EGITARAUA

Maiatzak 7, gaur

■ 10:30-13:00 eta 17:00-21:00.

Artistak egun osoan zehar egongo dira Plaza Zaharrean. 15 metroko perimetroa duen hirukia landuko dute, eta 4 eguneguz izango da ikusgai.

Maiatzak 8, bihar

■ 20:30. Txiletar artistek euren erakusketa inauguratuko dute GKO galerian.

Maiatzak 9, etzi

■ 11:00etatik aurrera. Berazubiko estadioaren hormetan taldeko lana egingo dute Txiletik etorritako artistek bertakoekin batera. Parte hartu nahi duten guztientzat irekia izango da.


ko moduko prezioetan jarri ditugu. Lehen esan bezala, elitista izan baino, artea guztion zerbait izatea nahi dugu». Txiletar artistak igandera arte egongo dira gurean, baina GKO galerian ekainaren 5era arte izango da ikusgai euren lana.

Harrituta lan egiteko moduz

Esan bezala, Tolosako GKO galeriarekin ezezik, Spacejunk izeneko Grenoble, Baiona eta Bourg-Sain-Maurice herrietako galeriakin ere egingo dute elkartrukea txiletarrek. Hala, Baionan izan dira dagoeneko euren lana erakusten, eta bertan izan ziren tolosarrak baita ere. Garikoitz Murua adierazi duenez, «oso lan handia ekarri dute. Gainera, gauza asko ikasten dira elkartruke hauekin; esaterako, gu harrituta geratu gara gu baino baliabide gutxiarekin zenbat egiteko gai diren, material asko errezikatzen baitute».



Txileko artista taldearen lanetako bat. HITZA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosatik mugitu gabe munduari bira eman diote egun hauetan Tolosako eta Ibarako Lehen Hezkuntzako bigarren mailako neska-mutilek. Gustura ibili dira, gainera, jolasean egin baitute.

Kontinentez kontinente

REBEKA CALVO

Gustura zeuden atzo Tolosako Kultur Etxera gerturaturatuko haurrak. Jolastera joan zirenean munduko kultura desberdinen berri izateko aukera ere izan zuten, era berean. *Munduari bira jolasean* jolas-gunean algarak eta saltoak nagusitu ziren; batzuk tinbalak egiten ari ziren, besteak mandalak eta kariokak ere bazeuden tartean.

Astelehenetik atzo bitarte Tolosako eta Ibarako 247 ikasle pasa dira Bilboko Eragintza Kultur Era-kundeak antolatutako jolas-gunetik, helburua neska-mutilek munduko bost kontinenteetan zehar jolasean aritzea izan delarik. Kon-

tinente bakoitzean begirale bat egon da hainbat jolasean berri emateko eta honekin batera, munduko txoko desberdinetako bereizgarri diren objektu eta jokoak egiten irakasteko.

Mozambique, El Salvador...

Atzokoan Afrikari eskainitako gunean Mozambikoko pondas izeneko jokoan aritu ziren; hiru pote eta hiru pilota zituztela barruan sartzeko ahaleginetan aritu ziren gaztetxoak. Hau baino lehen, hala ere, tinbalak egiten eta apaintzen ere aritu ziren.

Europar, aldiz, berez aristokraziarekin erlazionatzen den eta Irlandatik datorren krocket jokoan



Ameriketako gunean Brasileko kariokak egin zituzten umeak eta ondoren horiekin jolastan ere aritu ziren. R. CALVO

aritu ziren; erdian uzta txikiak zituzten eta bertatik pasa behar zituzten pilotak mazo batekin kolpatu eta gero. Maskarak margotzen ere egon ziren.

Amerikan Brasileko kariokak egiten aritu ziren; puxikak arrozarekin bete zituzten lehenik eta behin eta ondoren hauek hariarekin lotu zituzten airean bueltak emateko. Gune honetan beste bi

jolas ere ikasi zituzten; Boliviako botilaren eta El Salvadorreko uztairen jokoak.

Ozeania ere bisitatu zuten neska-mutilek. Puzzle antzekoa den tantris jokoan aritu ziren, hau da, fitxa desberdinekin itxura desberdinetako piezak osatzen, eta bertan tatuajeak egitea ere oso ohikoa denez, besoak ere tatuajez bete zituzten haurrek.

Bukatzeko, Asian espiritualak uxatu ahal izateko mandalak egin zituzten, ondoren lepotik zintzilak eman zituztenak etxera, eta bi jokoetan aritu ziren: mikados eta tangram. Lehenengoak pilatutako makilak banan banan kentzean datza, baina beste makilak mugitu gabe; bigarrenengoan, aldiz, pieza desberdinekin irudiak egin behar izan zituzten.

Dastatu Euskal Herriko produktuen zaporea, berriaren udaberriko eskaintzarekin

Haragi sorta
Sorta bakoitza 3 kilo alda eta jolatu haurtan berantzen da. Hiru motak: emak, haragi ardea, sarrak, zerrak, gurtatuta baxila.

3 kiloko sorta **58 €**

Alloko zainzuriak
Lata bakoitza 6 kilo alda eta jolatu ardea eta jolatu gurtatuta da. Hiru motak: emak, haragi ardea, sarrak, zerrak, gurtatuta baxila.

4 latako sorta **54 €**

Juaxto hegatuza
Emakaren heganatutako haragiak. Hegatuza eta zerrak berantzen da.

6 latako sorta **49 €**

Solagüen upetegiako ardo zuria
MONTBUENA BARRUTETIKO

SOLAGÜEN Montebuena
2008

12 botilako kutxa **39 €**

Noiz eta nola egin eskaria?

Apirilaren 23tik maiatzaren 17ra
aukera izango dugu

1. Telefonoa: 943-37-43-45
2. Web: haragidetzalberria.info

Alfar La Maja
OLIKA OLIO BIRJINA EXTRA
12 botilako kutxa **36 €**



Asian mikadosen jolastan egon ziren Ibarra eta Tolosako haurrak. R. CALVO



Afrikar tinbalak egin eta apaindu zituzten neska-mutilek. R. CALVO

Udalak Francori Alegiako Ohorezko alkatetza kargua kendu dio

Alegia » Gipuzkoako herriek 1949an Ohorezko alkate izendatu behar izan zuten diktadorea; mozioa aurkeztuz, hau ezeztu dute.

ERREDAKZIOA

Alegiako udalak azken ohiko bilkuran bi mozio onartu zituen, bata UEMAK Osakidetzaren aurka aurkeztutakoa eta bestea, Francisko Franco Bahamonde generala Alegiako Ohorezko Alkatetza kargua kendu dio, aldeko 8 bozkarekin (EAE-ANV) eta aurkako bozka batekin (PSE-EE).

«Frankismo garaiko biktimei zor zaien begirunea aitortzen dugu, hauei dagokien egia jakiteko eskubidearen aldeko konpromisoa azalduz».

Duela zehazki 60 urte Gipuzkoako herri guztiak Franco diktadorea Gipuzkoako Ohorezko Alkate izendatu zuten, abuztuaren 24an, hain juxtu. Alegiaren kasuan, 1949ko abuztuaren 20an erabaki hau hartu zuen orduko udalbatza kide guztiak: Franco Udaletxeko ohorezko alkate izendatzea. Hori herri guztiak egin behar izan zuten, behartuta ia. Kontua da, gaur egun herri gehienek oraindik hori mantentzen dutela, kasu askotan gauza jakina ez delako.

Une hartan, 1949an, hain zuzen ere, alkatea Angel Oyarzabal Murgiondo zen, eta beste alkateekin batera, Aietera joan beharra izan zuen Francoren aurrean leialtasuna adieraztera.

«Frankismoko biktimen alde»

Alegiako Udalak mozio hau sartu zuen Anoetako udalak egin zuela jakin zuenean.

Besteen artean hauek dira hartutako erabakiak: «Frankismo garaiko biktimei zor zaien begirunea aitortzen dugu, hauei dagokien egia jakiteko eskubidearen aldeko

konpromisoa azalduz. Horretarako ahanzturari aurre egiteko prozesu soziala sortzea ezinbestekoa dela irizten dugu, herritarrek jasandako errepresioa dela eta ordainetikoa eta aitortza publiko jasotzea merezi dutela aldarrikatuz».

Beste adostasun bat hau izan zen: «Gerra Zibileko zauriei duintasunez aurre egiteko eta orduko izugarrikeriak gogorarazteko beharra» azaltzen da, «oroimena identitate sozialeko faktore bilakatzeko eskatuz; iraganeko akatsak publikoki aitortuz eta gizarte demokratiko bat sostengatu behar duten balio eta oinarriak berretsiz, ezein ideia edo proiektu politiko totalitarioren izenean inoiz errepikatzea ez daitezen».

Bukatzeko, «Frankismo garaiko biktimei ordain moral eta ekonomiko jasotzeko duten eskubidea» aldarrikatzen da mozioan.

Tolosaldean bigarrena

Periko Peñagarikano Anoetako alkateak, otsaileko ohiko bilkuran mozio hau onartu zutenean eta berak dakienez Francori ohorezko alkate kargua kendu dion beste udalerrira Gipuzkoan Arrasate izan da. «Jaz hartu zuten erabakia, oroimen historikoa berreskuratzeko lanean aritzen den elkarte batek eskaera egin eta gero».

Gerra Zibilaren ondoren (1936-1939), diktadura ezarri zen Hego Euskal Herrian eta espainiar estatuan. Horretan zehar, herritar ugari giza eskubideen eta oinarriko eskubideen aurkako gehiegikeria eta urratze larriak pairatu zituzten. Francoren diktaduraz ari gara. Orduko galtzaileek, «gerra bukatuta ere errepresio bortitza jasan behar izan zuten». Nahikoa zen «gorri edo separatista baten senide edo laguna izatea, diktaduraren errepresioa jasateko».

Diktadura honek 40 urtez iraun zuen, baina «pairatutako oinazeak



1949. urtean Gipuzkoak Franco ohorezko alkate izendatu zuen. ALEGIAKO UDALAA



Alegiako Udalarekin batera, Anoetak eta Arrasatek onartu dute mozioa. N. U.

ez du oraindik merezi duen aitormena jaso». Frankismo garaiko diktaduran izan zen errepresioa ezkatutaz garatu zen «ereduzko Baina «honela Gerra Zibileko zauriak baztertu egiten zirela pentsatu

zuen gizarteak baina egia ezkatuta, gizarte baten historia zatia ostu, eta horigabe garatutakoa sortu da». Hau honela, «trantsizio demokratikoak erakutsi ez zuen begirunearen zorra ordaintzeko bebar morala dugu herritarrok».

AHTren aurkako etziko Iruñeko manifestaziora joateko autobusa

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko AHTren oinarritzko proiektua Udaletan da jada. Legorreta-Zizurkil bitarteko lanen lehen pausoak ematen ari dira, hau da, Eusko Jaurilaritzak lanen eskaintza onartu du. Honenbestez, Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak «proiektua geldiarazteko» etzi Iruñean izango den manifestaziora joateko deia luzatu du. 17:30ean izango da, Antoniutti parketik abiatuta eta *Guztion artean AHT geldituko dugu, txikiziorako diru gehiagorik ez!* leloarekin.

Bertratzeko autobusak antolatuta dituzte Tolosaldeko ere. Izena Tolosako emateko Raku eta Denak tabernetan, Anoetako Itzulín, Zizurkilgo Zentroan eta Villabonako Iratzarren egin daiteke. Autobusa 15:30ean abiatuko da Tolosako Santa Klaratik.

Herriarteko Pilota Txapelketan Lizartza, Anoeta eta Berastegi

ERREDAKZIOA

Herriarteko Pilota Txapelketako partidak jokatuko dituzte asteburuan. Kasu honetan, eskuz, Lizartza eta Astigarragaren arteko itzuliko izango da. Igandean jokatuko dute 11:30ean hasita.

Berastegik Hernaniren aurka jokatuko du 11:00etan, igandean ere. Azpeitiak eta Anoetak elkarren artean jokatuko dute, bihar 22:00etan Azpeitian.

Bestalde, Ibarran Udaberri Txapelketako Lau T'erdikoa jokatuko dute Aurrera Saiazkoek, bihar. Alegian 20:00etan Intxurreko bat eta Hernaniko bat ariko dira. Villabonan Behar Zanakoen txanda izango dabilhar, 21:15ean. Etzi ere bost partida izango dira, 09:30ean hasita.

Laburrak

Europar parlamenturako hauteskundeetako mahaia

IKAZTEGIETA » Ikaztegieta europar parlamenturako izango diren hauteskundeak direla eta, mahaiaren egongo diren pertsonen zozketa egingo dute. Hilaren 8an, hau da; bihar, egingo da, goizean zehar, 09:30ean, hain zuzen ere. Udaltxean izango dira.

'Ino, Ino, Ino badator Bonbardino' antzezlan

ALTZO » Datorren asteartean Altzoko Lizarbelo gelan, Udalak antolatuta eta Galtzaundi Euskara Taldearen laguntzaz, *Ino, Ino, Ino badator Bonbardino* haur ikuskizuna izango da 17:30ean. Antzezlan hau haurren jazarpenaren kontrako alegatu bat da.

bila dabilzan pertsonentzat - santutegia, kultura eta natura

ezagutu Arantzazu gaur

uste duzuna baino gehiago da

www.arantzazu.org

Eskolako Agenda 21ean landutakoa aurkeztu diote ikasleek Udalari

Villabona » Flemingo eta Jesusen Bihotzako ikasleak izan ziren udaletxean; ikasturte honetan ekitate gabezia landu dute.

ERREDAKZIOA

Villabonako Fleming eta Jesusen Bihotzako ikasleek ikasturte honetan Eskolako Agenda 21ean landutakoa aurkeztu zioten atzo Maixabel Arrieta alkateari. Bi eskolako Ingurumen Batzordean parte hartzen duten ikasleak izan ziren bertan. Agenda 21aren baitan ekitate gabezia landu dute ikasturtean. Helburu nagusia ikasleek ingurumena, kontsumoa, bizi kalitatea, pobrezia, giza eskubideak eta azarna ekologikoa oso erlazionatuta daudela konturatzzea izan da.



Hainbat ikasle izan ziren atzo udaletxean aurkezpena egiten. HITZA

Atzoko aurkezpenean, egindako lanen berri eman zuten eta zer ondorio atera dituzten lan horietan. «Herri aberatsetako herrita-

rreko pobreak gure zerbitzari gisa tratatzen ditugu» eta «ez da zilegi lan asko egitea eta diru gutxi irabaztea» izan dira atera diren ondo-

rioretako batzuk. Hainbat proposamen ere egin dituzte publiko ikasleek ateratako ondorioetatik abiatuz, besteak beste, «etorkinei lana bilatzen laguntzea, diru laguntzak ematea, etxea lortzen erraztea, arropak eta janaria ematen arduratzea; ondo laguntzea, dependenziarik sortu gabe», edo «bidezko merkataritzako dendak irekitzeko erraztasunak ematea».

Proposamenak egiteaz gain, konpromisoak ere hartu dituzte. «Lagunekin jolastuko dugu, lagunak ez direlako erosi behar» da konpromisoetako bat, edo «gurasoei etxeko lanetan lagunduko diegu», «etorkinari bere herrialdeari buruzko jakin-mina azalduko diegu», «6. mailakoek bigarren eskulako denda antolatu eta dirua pobreei emango diegu», eta horrela 25 konpromiso zenbatu arte.

Gaztetxeko urteurrena ospatuko du Onddo gazte asanbladak etzi

ERREDAKZIOA

Onddo gazte asanbladak Villabonako Gaztetxearen urteurrena ospatuko du etzi. 11:00etan mendi martxa aterako da kiroldegitik. 14:00etan bertso bazkaria izango da plaza (eguraldi txarra izanez gero kiroldegiko tabernan) eta jarraian triki-bertso poteoa egingo dute. 20:00ak inguruan afari-menienda kiroldegiko tabernan. 21:30ean kontzertuak eta jarraian DJ Zigor. Bazkarirako txartelak salgai daude 10 euroan Rainbow, Iratzar, Apax eta Xiker tabernetan. Bestalde, kamisetak salgai jarri dituzte Kultur Etxean.

Onddo gazte asanbladakoek autobusa antolatu dute Herri Urratserako. 10 euro balio du txartelak eta salgai jarri dituzte Kultur Etxean. Gaur izango da azken eguna erosteko, 19:00etatik 20:00etara.

Galdu ostean, liderraren aurka du partida etzi Transportes Lakunzak

ERREDAKZIOA

Villabonako Transportes Lakunza areto futbolero taldeak etxean 4-5 galdu zuen Iralabarri taldearen aurka eta asteburu honetan partida oso garrantzitsua dute Lasarten igoera postuetan mantentzeko. Bi jardunaldi besterik ez dira falta eta liderraren aurka, Clinica Dental Aldaz, jokatu dute etzi, 17:45ean. Horregatik, zaletuei Lasartera joan daitezten eskatu die taldeak.

Aurreko asteburuan espero ez zuten porrota izan zuten billabonatarrek. Baloia gehiago izan zuten Lakunzakoek, baina ezin izan zuten markagailuan islatu nagusitasun hori. Partidaren bukaeran 3-4koarekin izan ziren baina bosgarrena sartu zuten aurkariek. Azken segunduan sartu zuten Lakunzakoek laugarrena.

Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren hirugarren kanporaketa

ERREDAKZIOA

Poltsikoko Antzerki Lehiaketaren hirugarren kanporaketa egingo dute bihar Adunan dagoen Asvinenea arte eszenikoen laborategian. 22:30ean hasiko da eta sei taldek parte hartuko dute bertan: Irri Makilak *La fuente del amor* antzezten du; Teatraigo taldeak *Le mame lon fantastik*; Estocolomo taldeak *Hasta que llego ella*; Beatriz Garciak *Maldito festival*; Karmakros taldeak *Jovenes*; eta Desinflou taldeak *El ojo gris de la verdad*. Hauez gain, artista gonbidatu baten parte-hartzea izango da. Sei talde horietatik bi talde pasatuko dira finalerdietara.

Aurreko kanporaketa ere bi taldek egin zuten aurrera. Epaimahaiak Jogo Teatro taldea aukeratu zuten eta entzunlegoak Tres Tristes taldea.

Trinketeko III. Emakumea Pilotari Txapelketako partidak, bihar

ERREDAKZIOA

Trinketeko III. Emakumea Pilotari txapelketako bigarren jardunaldiko partidak jokatu dira bihar. Guztira sei partida jokatu dira, hiruna Irurako Ametsa Trinketean eta Donostiako Gaskan. Gaskaok 20:00etan hasiko dira, eta Irurakoak, berriz, 21:30ean.

Irurako partidei dagokionez, lehenengo partida bigarrenengo mailakoa izango da eta Tijero-Moron eta Lizeaga-Ugalde bikoteen artean izango da. Bigarrenengo partida lehenengo mailakoa izango da, Echave-Unanue eta Aburuza-Montes bikoteen artean. Hirugarrenengo partida ere lehenengo mailakoa izango da eta Arozena lizarretzarrak parte hartuko du. Arozenak Etxegiarekin jokatu du Espinar eta Fernandez bikoteen aurka.

L Laburrak

Agenda 21aren inguruko herri batzarra, bihar

ALKIZA » Udalak herri batzarra antolatu du bihar, Tokiko Agenda 21en baitan ekintza planaren 2008ko ebaluazioaren emaitzak aurkezteko. Bertan, azken urtean egindako ekintzen inguruan hitz egingo da eta herritarren ekarpenak ere jasoko dira. Batzarra 22:00etan izango da, Kultur Etxean.

Olaitegitik taldeak bilerara deitu du gaurkorako

ALKIZA » Olaitegitik taldeak gaurkorako antolatu duen bilerara gonbidatzen ditu herritarrek. Kultur Etxeko gela balioaniztean izango da bilera eta 20:30ean hasiko da. Aurtengo alearen antolaketa jarraipena egingo dute bilera horretan.

Egibar eta beste presoak 9 egun garbitasun greban

ZIZURKIL » Gaur bederatzigun betetzen dira Mikel Egibar zizurkildarrak eta Algeciras-Botafuego espetxean dauden beste euskal presoek garbitasun greba hasi zutela. Bi egun gehiago daramatzate gose greban, hamaika egun, beraz. Amnistiaren Aldeko Mugimenduak egoera «oso larria» dela ohartarazi du eta «lo egiteko ere zailtasunak» dituztela azaldu dute. Presoek euren behar fisiologikoak ziegan bertan betetzen dituzte, zaborra ere bertan uzten dute eta ez dute inolako garbiketarik egin. Greban dauden presoek lau eskaera egin dituzte: jipoi gehiagorik ez, espetxe araudia betetzea; bizi-baldintza duinak bermatzea eta barkarte zigorrak ez ezartzea.

Oteizaren erakusketak inauguratuko dute gaur

ZIZURKIL » Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan, gaur Oteizari buruzko erakusketaren inaugurazioa egingo dute Atxulondo kultur etxean, 19:30ean. *Oteiza, bizirako proiektua* erakusketak hilaren 26ra arte izango da ikusgai. Berritasun bezala, bi bisita gidatu antolatu dituzte: hilaren 9an, 11:30ean, gazte-leraz, eta hilaren 16an, 11:30ean, euskaraz.

H Hilberriak

FRANCISCO GARZIANDIA ENERIZ

Atzo hil zen, 89 urterekin, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

-Golien bego-

Bere anima zuzendaria: Jose Luis Agirretxe; emaztea: Asun Garziandia; seme-alabak: Juan Antonio (?), Kandi eta Arantxa Berasategi, Migel Angel, Cruz eta Fabiola Iturria; bilobak: Jon eta Alaitz Juantorena, Mikel; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuzte eta arren etor zaitezela GAUR, OSTEGUNA, arratsaldeko ZAZPIETAN, AMA JASOKUNDEAREN parroki elizan gorpua bertan dela egingo den hiletara. Eskerrik asko gutzioi alde aurretik.

Helbidea: Zurbano 22, 1.
Oharra: Gorpua Beasaingo Goierri Beilatokian egongo da.



SEGURA - UNANU
2009ko maiatzaren 7a

IÑAKI ALEXANDRU ANTZA ALBA

Abandonaturik utzi gaituzun honetan har gaitzazu zuk egindako kartoizko etxean. To mutiko, luzatu bostekoa. Askok poztzen gara zu ezagutu izanaz!



Osaoba-izebak eta lehengusuak

DONOSTIA
2009ko
maiatzaren 6a



Xabier eta Jon Jaunarenak bihar jokatuko dute. Atzo Bengoetxea VII.a eta Txoperena monitorearekin entrenamendua egin zuten. ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Txapelketan Leitzak Uharteren aurka jokatuko du

Pilota » Txapelketa irabazten duenak Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketan jokatuko eskubidea dauka.

ASIER IMAZ

Nafarroako Herri Arteko Pilota Txapelketa gaur hasiko da Leitzarentzat. Uharteko Iruñean etxeko taldearen aurka jokatuko dute Aurrera Pilota Eskolako seniorrek 20:30ean. Oihan Alduntzinek eta Mikel Iriartek osatzen duten bikoteak zabalduko du beraz txapelketa leitzarrentzat.

Seniorren ondoren alebinak, infantilak eta jubenilak etorriko dira. Hauek ordea bihar jokatuko dute. Alduntzin-Iriartek bezala Uharteren jokatuko dute Lezea-Eskudero, Olano-Hernandorenak eta Xabi Jaunarena-Jon Jaunarenak.

Hiru partida hauek 19:30etik aurrera jokatuko dituzte.

2008ko borroaren aurka

Uharteko Iruñak iaz finalaurrekoetan Leiza kaleratu zuen. 2009ko edizioan hori ez gertatzea espero du Pakito Sagastibelzarak, Aurrera Pilota Eskolako kideak: «Parean

ikusten dut lehia. Bakoitzak bi partida irabaz ditzake eta tantoetara erabakiko dela iruditzen zaiz».

Txapelketa barnetik

Nafarroako Herri Artekoan aurren bederatzi herrik hartuko dute parte. Hauek hiru multzotan banatu dituzte, ondorioz multzo ba-

koitzean hiru herri aurkitzen dira. Leitzaren taldean Uharteko eta Arbizu daude. Beste biak honako hauek dira: Alde batetik Burlata, Lizarra eta Baztan daude eta bestetik Irurtzun, Doneztebe eta Iruña.

Partida irabaziz gero herri bakoitzak bi puntu saria jasoko du. Galduz gero puntu bat eta partidura ez baldin bazara aurkezten 0 puntu. Lau kategori ezberdinetan jokatzen dira lehiak, ondorioz puntu berdinketa egon daiteke amaieran. Kasu honetan, tantoak hartuko lirarteke kutant.

Bederatzi taldeetatik lehen fase hau amaitzean, 4 herri sailkatuko dira finalerdietarako, hau da, hiru multzotako lehenengoak eta orokorrean bigarren onena suertatu dena. Finala Iruñako Labrit pilotalekuan jokatuko da eta garaileak Euskal Herriko Herri Arteko Txapelketan jokatuko du.

AURRERA PILOTA ESKOLAKOAK HAN ETA HEMEN

Nafar Jokoetan etzi jokatuko dituzte partidak Leitzako pilotariak. Amazalen 10:00etatik aurrera hiru bikote irtengo dira frontoira: Mikel Eraso-Aimar Gil, Iñaki Saralegi-Lenitz Galartza eta Joxerra Aldaregia-Mikel Hernandorena. Egun berean baina Lizarran, Ibai Gil-Ander Garziarenak jokatuko dute partida eta Burlatan Mikel Sagastibelzara-Xabi Zubiriak.

Lizarrako Txapelketan, etzi 16:00etatik aurrera, Eskudero-Erasok, Barriola-Iparragirrek eta Onsaldo-Erasok jokatuko dute.

Zaramagoko eta Getxoko Txapelketetan finalak jokatzen hasiak dira. Infantiletan Olano-Tolosak jokatuko dute etzi Zaramagon. Getxon seniorretan Larrañaga-Iriartek Beitia-Bengoetxearen aurka jokatuko dute.

Ordiziako Txapelketan, hilaren 10ean, Olano-Garziarenak jokatuko dute eta Elgetako Txapelketan, egun berean, Jon Jaunarenak.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots hilaren 13an

A. IMAZ

Erleta Ikastetxeko Denok Bat Guraso Elkarteak eta Aurrera Kirol Elkarteak, Leitzako Udalaren laguntzarekin, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ospetsuen ikuskizuna antolatu du hilaren 13an, asteazkenean.

Leitzako kiroldegian Pirata ikuskizuna eskainiko dute 18:00etatik aurrera hiru pailazoek eta euren lagunak.

Sarrerak hainbat herritan jarri dituzte salgai 6 euroren truke.

2007, 2008 eta 2009 urteetan jaiotako haurtxoek ikuskizuna doan ikusteko aukera edukiko dute.

Sarrerak non?

Leitzan Maimur eta Astiz liburudendan. Berastegin Dendaberrin. Irurtzunen Ikusar Euskal Txokoan. Lekunberrin Lanbroalburudendan. Donezteben Astiz liburudendan. Goizuetan Anaia Kafetegian. Tolosan Raku tabernan eta Andoainean Ernaitza liburudendan.

Ruben Saralegi eta Arkaitz Olano Ataunen

Leiza » Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan lehiatuko dira bi aizkolariek hilaren 9an, larunbatean, 19:30ean.

A. IMAZ

Leitzako bi aizkolariek gazteak ikusteko aukera egongo da hilaren 9an, larunbatean, Ataungo San Gregorio pilotalekuan. Herri kirol jaialdia 19:30ean hasiko da eta aizkolar

nagusiak Anjel Arrospide eta Xabier Orbeagoz izango dira.

19 urte azpikoak

Leitzako bi aizkolariek Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketan dabilta, 19 urte azpikoekin.

Ruben Saralegi Ander Erasuren aurka lehiatuko da Ataunen, Arkaitz Olanok Ohian Larretxean edukiko du aurrean. Aizkolariek 12 enbor ebaki beharko dituzte, lau modu desberdinetan.

L Laburrak

Donostiara joan-etorria autobus ordutegi berria

LEITZA » Conda autobus konpainiak, Leiza-Donostia eta Donostia-Leiza ibilbidea egiten duenak, ordutegi berriak jarriko ditu martxan gaurtik aurrera. Condatik jakinarazi dutenez Leitzatik Donostiara doan autobusa 11:45ean irtengo da egunero. Arratsaldeetakoak berriz 20:30ak inguruan. Itzulerako autobusa, hau da, Donostiatik Leitzara etortzen dena, egunero 09:00etan irtengo da ordutegi berriaren arabera. Arratsaldeetakoak berriz 20:15ean.

Amaia Vazquezek hitzaldia bihar 15:00etan

ARESO » Guraso Elkarteak, joan den urtean Amaia Vazquez sexu hezitzailearen eta psikologo klinikoaren eskutik antolatutako hitzaldien harira ona ikusita, ikasturte honetarako ere hitzaldiak antolatu ditu, Gizarte Zerbitzuaren laguntzarekin. Hasiara batean hitzaldiak Guraso Elkartearen lokalean egitea pentsatzen baldin bazuten ere, azkenean udaletxean egingo dituzte. Azken bi hitzaldietan lehena bihar egingo dute 15:00etatik aurrera, ordu eta erdiko iraupenarekin.

T Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarra. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdia)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzaran autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1.687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta/Leizaola: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra/Leizaola: 687 410 032. ibarralea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agurrak



Urte askoan huevo!

Besarkada iraultzaile bat txoko hontatik ere. Añamendi puntan ospatuko dugu askatasuna! Mantalax.



Manexen etxea tinko, zutik-mantenduko dugu!

Zorionak Manex! Eutsi ta zaindu! Lorazainak.



Zorionak Koko!

Manex Castro Zabaleta. Zure taldea mailaz igo dadin zure golak falta zaizkigu! ta zure umorea!



URTE ASKOAN MANEX!

URTE ASKOAN!

Manex Castro Zabaleta (Villabona). Maite zaitugu Villabonatik. Geurea da garaipena!!




Zorionak Koko!

Wuitutarrak zurekin gaude! Pakean utzi arte! Animoak eta indarra hemendik!



Zorionak osaba Koko!

Animoak eta eutsi gogor. Etxekoak.



URTE ASKOAN MANEX!

Kuadrila zahar ta gaztitan partez, zaindu!

maite zaituztegu!

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako ar-bola, 3. 943 651040.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52.112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.